



Arartekoaren 2023R-2326-22 Ebazpena, 2023ko ekainaren 20koa. Honen bidez, Bilboko Udalarari gomendatzen dio berrikeri dezala gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL) aitortzeko eskaera ukatzeko ebazpena, erabilitako argudioa ez baitago araudian babestuta; izan ere, GLLak jasotzea ez da bateraezina diru-sarrerak bermatzeko errenta azkentzearekin.

Aurrekariak

Herritar batek Arartekoak esku hartzeko eskatu zuen, ez zegoelako ados Bilboko Udalak bere bizikidetzaren unitateari gizarte-larrialdietarako laguntzen (GLL) eskaera ezetsi izanarekin.

Kexagilea gizon pentsioduna da eta menpekotasuna dauka, osasun mentaleko arazo larriak baititu, eta bizikidetzaren unitatea osatzen du izatezko bikotearekin batera. Alokabideren gizarte-babeseko etxebizitza batean bizi dira, alokairu-araubidean. 2021eko urtarriletik 696,10 euroko kotizazio gabeko pentsioa du aitortua, 2022ko urtarrilean errebalorizatu zena, eta gaur egun 724,82 eurokoa dena.

Gaur egun, bikotekideak Bilboko lehen auzialdiko 14. epaitegiak (Familia) 2022/07/05eko epai bidez aitortutako zaintzeko kuradoretza du (sei urtean behin berrikusi behar da eta urtero jarraipen-txostena egin behar da). Hori baino lehen, kexagilearen amak zuen eginkizun hori, modu informalean, epaiak berak jasotzen duenaren arabera.

2022/09/29an, kexagileak GLLak aitortzeko eskaera egin zuen Bilboko Udalean, honako kontzeptu hauetarako, hain zuzen: elikadura, argia, gasa, ura, aseguru eta dentista. Eskaera horri erantzuteko, udaletxetik honako dokumentazio hau eskatu zioten 2022ko azaroaren 7an:

- *"Documento de identificación de todos los miembros de la unidad familiar*
- *Titularidad de la cuenta bancaria (1ª hoja de la libreta) y movimientos de los 12 últimos meses de todas las cuentas bancarias de todos los miembros de la unidad familiar (escaneados -NO SON VALIDAS FOTOS)*
- *Recibo de agua, comunidad, luz y gas (uno de cada en caso de no estar domiciliado)*
- *Recibo de seguro de hogar*
- *Presupuestos o facturas de 2022 para los que solicita ayuda de emergencia (gafas con graduación)*
- *Resolución de Lanbide con el motivo de suspensión/denegación rgi*
- *Motivo denegación ingreso mínimo vital"*





Behin aurkeztutako dokumentazio guztia aztertu ondoren, Bilboko Udalak 2022/11/24an jakinarazi zion **eskaera ezetsia izan zela**, honako arrazoi hauetan oinarrituta:

- *“DBE eta EPO jasotzeko eskubidea dauka: Ezin zaio GLLrik eman aurreko eskubide ekonomikoak baliatu gabe, GLLak DSBEaren subsidiarioak baitira”.*

Kexagileak adierazi zuen ez zegoela ados, eta **alegazioak** aurkeztu zituen. Alabaina, 2022ko abenduaren 14ko ebazpen bidez, Bilboko Udalak alegazioak ezetsi zituen, adierazitako jarrera berretsi zuen eta honako hau gaineratu zuen:

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019eko ekainaren 15ean eskuordetzarako hartutako erabakiaren bidez esleituta dituen eskumenak kontuan hartuta, Gizarte Ekintza Saileko zinegotzi ordezkariak

HONAKOA EBATZI DU:

LEHENENGOA.- Gizarte Ekintza Sailak egindako txostenak kontuan hartuta eta, aurkeztutako alegazioak zein frogak aztertu ondoren, oraindik ere laguntza esleitzeko beharrezkoak diren legezko eskakizunak bete ez direla ikusita, (...) jaunak/andreak eskatutako Gizarte Larrialdietarako Laguntza UKATZEA. Izan ere, DBE eta EPO jasotzeko eskubidea dauka: Ezin zaio GLLrik eman aurreko eskubide ekonomikoak baliatu gabe, GLLak DSBEaren subsidiarioak baitira.

Inguruabar hori, hain zuzen ere, Dirusarrerren Bermeari eta Gizarte Inklusioari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legeko 45.2. eta 46 c) artikuluetan xedatutakoaren aurkakoa da. Gainera, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuaren bidez aldatutako urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuko 5.1 c) artikuluan eta 4. artikuluko 2. zein 3. idatz-zatietan xedatutakoarekin ere ez dator bat.

Ezespen horri erantzuteko, 2022/12/29an, kexagileak **aukerako berraztertzeo errekurtsoa** jarri zuen, baina udaletxetik errekurtsu hori ere **ezetsi** zuten.

Hori guztia dela eta, kexagileak **kexa bat aurkeztu zuen Arartekoan**, ez zegoelako ados Bilboko Udalak gizarte-larrialdietarako laguntzak ukatzeko emandako ebazpenarekin. Kexa izapidetzeko onartu ondoren, Arartekoak idazki bat bidali zion Bilboko Udalari, kexagileak adierazitako egitateei buruzko **informazioa eskatzeko**.

Laguntzeko eskaera horri erantzuteko, Bilboko Udalak txosten xehatu bat bidali zuen 2023ko martxoan, eta honako hau adierazi zuen:¹, laburbilduz:

(...) “Tras la adecuada tramitación y valoración de la situación del solicitante de la ayuda se concluyó que procedía denegar la ayuda solicitada como

¹ Guk jarri diogu enfasia

consecuencia de que tiene derecho a RGI y PCV mediante resolución el concejal delegado del 14 de diciembre de 2022, siendo notificado al usuario el 29 de diciembre de 2022.

(...)” ...se desestimaba el recurso de reposición fundamentando en que no se pueden percibir Ayudas de Emergencia Social en los supuestos en los que no se percibe la Renta de garantía de ingresos como incumplimiento de las condiciones para acceder a la mismo puesto las AES son subsidiarias y complementarias al resto de las ayudas, y, por lo tanto, un incumplimiento en las obligaciones para ser perceptor de la RGI no puede ser suplido por las Ayudas de Emergencia Social.

De la tramitación del expediente se concluyó que el solicitante de la Ayuda de Emergencia Social y su pareja no eran perceptores de la Renta de garantía de ingresos como consecuencia de que Lanbide, mediante resolución del 21 de abril de 2017 había extinguido la RGI a (...XX) y su unidad de convivencia puesto que no presentaron en el plazo estipulado la documentación que se le había requerido: certificado de bienes en el país de origen de (...)

La falta de entrega de dicha documentación es considerada como un incumplimiento de las obligaciones para ser perceptor de la RGI, y, por lo tanto, de las prestaciones del sistema vasco de ayudas para la inclusión reguladas en la Ley 18/2008, de inclusión, motivo por el que le han extinguido la prestación.

Como consecuencia de dicha extinción, derivada de un incumplimiento de una obligación para ser beneficiario de la Renta de garantía de ingresos, no procede concederle Ayuda de Emergencia Social toda vez que estas ayudas son subsidiarias y complementarias del resto de las ayudas de acuerdo con lo establecido en el artículo 42.2 de la Ley 18/2008 de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social (...)

Es por ello que quienes no cumplan con sus obligaciones para ser perceptores de Renta de garantía de ingresos, y, por lo tanto, no acrediten el cumplimiento de los requisitos para acceder a las ayudas del sistema vasco de inclusión, o incumplan las obligaciones para ser perceptores de dichas ayudas, y, por lo tanto, tengan la RGI suspendida o extinguida, o, en su caso denegada, no accedan a las Ayudas de Emergencia Social puesto que no han hecho valer sus derechos económicos, y, por lo tanto, dicho incumplimiento no puede ser suplido por las AES, siendo estas subsidiarias del resto de las ayudas del sistema.

En el caso concreto del quejante cabe aclarar que no es cierto que se encuentra en una situación de ausencia total de recursos puesto que es perceptor de una pensión del INSS, y, por lo tanto, sus necesidades más elementales como pudiera ser alimentación están garantizada con dicha prestación.

Por lo tanto, reiteramos que la solicitud de la ayuda solicitada por (...) procede ser desestimada puesto que no ha cumplido con las obligaciones para ser



beneficiario de la RGI, y, por lo tanto, no puede acceder a las Ayudas de Emergencia Social puesto que las AES son subsidiarias del resto de las ayudas del sistema y dicho incumplimiento no puede ser suplido mediante las Ayudas de Emergencia Social”.

Hortaz, beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbideko dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

Espediente honen helburua da aztertzea kexa hau sustatu duen bizikidetz-unitateari GLLen eskaera ukatzeko Bilboko Udalak emandako ebazpena, jakiteko aplika daitekeen araudian babestuta dagoen ala ez.

1. Gizarte-larrialdiko laguntzak aldizkakoak ez diren beharrei erantzuteko dira, dirulaguntza izaera dute eta gastu espezifikoak, ohikoak edo apartekoak ordaindu ahal izateko nahikoa baliabiderik ez duten pertsonen zuzenduta daude, behar horiei erantzutea beharrezkoa den aldetik gizarte-bazterketa prebenitzeko, saihesteko eta arintzeko (urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretua, .2. artikulua).

Nahiz eta bizikidetz-unitatearen titularrak 2021eko urtarriletik 696,10 euroko kotizazio gabeko pentsioa aitortuta izan, 2022ko urtarrilean 724,82 eurotan errebalorizatu zena, GLLak eskatu zizkon Bilboko Udalari elikadurari, argiari, gasari, urari, aseguruari eta dentistari lotutako gastuei aurre egiteko, ezin omen baitzituen aipatutako pentsioarekin ordaindu.

Bilboko Udalak GLLak ukatzeko emandako ebazpena honako honetan oinarritu zen: *“DBE eta EPO jasotzeko eskubidea dauka: Ezin zaio GLLrik eman aurreko eskubide ekonomikoak baliatu gabe, GLLak DSBEaren subsidiarioak baitira”..*

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 18. artikulua jasotzen du laguntzak izapidetzean egiaztatu behar dela eduki ekonomikoa duten gizarte-eskubide eta -prestazioak guztiz baliatu direla. Egiaztapen hori alde aurretik egin behar da, pertsonari orientazioa emateko, eskaera aurkez dezan. Kasu honetan, kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) jasotzeko eskubidea baliatu zuen GLLen eskaera aurkeztu aurretik.

Halaber, kexagileak bizitzeko gutxieneko errenta ere eskatu zuen, eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak (GSIN) ukatu egin zion. Hau da, kexagileak **egiaztatu zuen prestazio biak jasotzeko eskubidea baliatu zuela, GLLak eskatu baino lehen**, baina Lanbidek horietako bat azkendu zion, eta GSINek bestea ukatu zion. Beraz, GLLak ukatzeko erabilitako argudioa ez dator bat.

Bilboko Udalak bidalitako txostenean zehaztasun gehiagorekin alatzen da zergatik ukatu ziren GLLak, eta, oro har, udalak adierazitako jarrera berresten du; hau da,





Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak DSBEa azkentzeko hartutako erabakiak eragina izan behar du GLLen eskaeran.

2. Aurretik DSBEa azkendu izanagatik GLLak ukatzea hizpide izan zen Arartekoaren 2020ko ekainaren 12ko 3/2020 Gomendio Orokorrean², honi buruzkoan, hain zuzen: *“Gizarte-larrialdietarako laguntzen bateragarritasuna diru-sarrerak bermatzeko errenta eten eta iraungitzearekin”*.

Gomendio Orokor horren abiapuntua honako gogoeta hau da: diru-sarrerarik ez izateak zer ondorio dituen familietan, zeinetan DSBE/EPO prestazioaren ordainketa eteteak edo azkentzeak oinarritzko premiei aurre egitea eragozten baitu, horrek erabat okerragotzea, **gizarte-bazterkeriako prozesua larriagotzea** eta haur-pobreziako egoerak eragiten dituen aldetik.

Ondorio horretara iristeko ofiziozko jarduketa hori hasi zen Arartekoak jakin ondoren EAEko hainbat udalek askotariko erantzunak ematen zizkietela GLLen eskaerei, eskatzaileek DSBEaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren (EPO) onuradun izateko baldintzak betetzen zituzten ala ez kontuan hartuta.

Hori guztia, alde batera utzita Lanbideak prestazio horiek eten edo azkendu dituen, prestaziook kudeatzen dituen erakundea den aldetik, edo eskaera-fasean zein berraztertze errekurtsoaren fasean dauden, eta, gainera, horiek izapidetzeko atzerapenak izan diren.

Pertsonak, zeinei gizarte-zerbitzuek GLLak ukatzen baitzizkieten, erakunde honi aurkeztutako kexetan nabarmendu zuten egoera horietan beren oinarritzko premiei aurre egiteko zailtasunak zituztela. Adierazi zuten egoera horretan udaleko gizarte-zerbitzuetara jotzen zutela, hain zuzen ere, **gizarte-bazterketa larriko egoera are gehiago okertzea saihestuko zuen laguntza** eskatzeko.

Lehen aipatutako 3/2020 Gomendio Orokor horretan, Arartekoak hau gomendatzen zien EAEko udalei, laburbilduz:

- Batetik, gizarte-larrialdietarako laguntzen eskaerak izapidetzean, udalek **banan-banan egiaztatu dezatela benetako premia-egoera dagoela eta laguntza horiek egoera horri erantzuteko egokiak direla**, urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 21. artikuluan (urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuak emandako idazketan) ezarritako irizpideak erabiliz eta adingabeen interes gorenari aintzat hartuta.
- Bestetik, Arartekoak gomendatu zien **gizarte-larrialdiko laguntzen eskaeraren balorazioa egitean ez zezatela kontuan hartu aurretik diru-**

² Eskuragarri hemen: <https://www.ararteko.eus/eu/arartekoaren-32020-gomendio-orokorra-2020ko-ekainaren-12koa>



sarrerak bermatzeko errenta eten edo azkendu zaien, ezta etxebizitzarako prestazio osagarria azkendu zaien ere.

GLLak izapidetzeko eta emateko Arartekoak proposatutako irizpideek oinarri gisa zuten urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuaren bidez aldatutako urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 18. artikuluan ezarritako araudia. Gogorarazi zuen laguntza horiek berariaz araututa daudela eta ondo mugatutako betebeharrak eta itzultzeko prozedura dituztela.

GLLa eskatzen duen familiak edo pertsonak DSBEaren edota EPOaren onuradun izateko betekizunak ere betetzen dituenean, horiek eska ditzala gomendatu behar zaio. Alabaina, ez bada prestazio horiek jasotzen ari (eten edo azkendu dizkiotelako, ebazteke daudelako, izapidetzeko atzerapena egon delako), eta ez badago berehala jasotzen hasiko delako aurreikuspenik, Arartekoaren iritziz, benetako premia-egoera larria sortzen da, eta udalaren gizarte-zerbitzuei dagokie laguntzon egokitasuna baloratzea egoera horri aurre egiteko.^o "Inguruabarrak edo aurrekariak egotea, adierazten dutenak arriskua dagoela laguntzon erabilera okerra edo xedearekin bat ez datorrena egiteko".

Erakunde honen ustez, gizarte-larrialdiko laguntzak ukatzeko arrazoia araubidean aurreikusita egon behar da (urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 5-7, 12. eta 21. artikulua, urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuak emandako idazketan), eta arrazoi horretan, ezingo litzateke adierazi diru-sarrerak bermatzeko errenta etenda edo azkenduta egotea edota etxebizitzarako prestazio osagarria azkenduta egotea edo eskaera ebazteke egotea.

Izan ere, inguruabar horietan sortzen da laguntzeko premiarik handiena, diru-sarrera ekonomikorik ez izatean prekaritatea eta zaugarritasuna areagotu daitezkeelako eta gizarte-bazterketa larriko eta haurren pobrezia arriskuak sortu daitezkeelako, adingabeak tartean direnean.

Horrek ez du esan nahi udalek, beharizanaren egoera larria eta erreala baloratzeko orduan, beste irizpide batzuen artean, pertsona horren jokaera edo Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubidea eteteko edota azkentzeko erabilitako arrazoiak kontuan hartu behar ez dituenik. Hala ere, **azterketa hori egiterako orduan, udalek kontuan hartu beharko lukete baita ere Lanbideren ebazpen horien aurkako errekurtsioak egon daitezkeela eta ebazteke egon daitezkeela, edota eskaeren izapidetzean eta administrazio-errekurtsioetan zein berriro ekitean atzerapenak egon daitezkeela.**

Arartekoak uste du ez dagoela arrazoi juridiko erabakigarririk gizarte larrialdiko laguntzak ematea debekatzen duenik diru-sarrerak bermatzeko errenta eten edo azkendu denean edo etxebizitzarako prestazio osagarria azkendu denean, edota prestazio ekonomiko horien eskaeren ebazpenak atzeratzen direnean. Gomendio Orokorrak udalek emandako erantzunak aztertzen zituen, gai horren inguruan jarrera desberdina baitzuten, baita aplikatu beharreko esparru juridikoa ere, ondare-mugak eta bateraezintasun-aurreikuspenak kontuan hartuta.





Azterketa horren ondorioa da GLLak bateragarriak direla DSBEaren titulartasunarekin, salbu eta «Alokairu-gastua» kontzeptuari eta EPOari lotutako beste gastu batzuei dagokienez. Ondorioz, araudiaren arabera, GLLak jasotzea ez da bateraezina DSBE edota DSBE/EPO azkentzearekin, are gehiago egintza irmoak ez badira, administrazio-errekurtso bat ebazteke dagoelako.

Azken batean, GLLak bateragarriak dira DSBEaren titulartasunarekin. Izan ere, Arartekoak gogorarazten zuen udalek GLLak ematen dizkietela DSBEaren titularrei (baita kontzeptu jakin batzuei dagokienez ere, EPOren titularrak direnean), eta, beraz, **arrazoi handiagoz eman dakieke GLLak DSBE eta EPO eten edo azkendu direnean**, edota eteteko edo azkentzeko ebazpen horren aurka aurkeztutako aukerako berraztertze errekurtsoaren ebazpenaren zain daudenean. Horrek **argi eta garbi adierazten du eraginpeko pertsonak zaugarritasun are handiagoko egoeran daudela.** Arartekoarekin harremanetan izan diren udal gehienak 3/3020 Gomendio Orokorren edukia eta hura betetzearen alde agertu dira.

Bestalde, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Lege berriak, 2023ko martxoaren 29tik indarrean dagoenak, irizpide hori 11. artikuluan jasotzen du. "Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomiko eta laguntzen bateragarritasuna" hauxe dakar:

"1. – Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren jasotako prestazio ekonomikoak bateragarriak izango dira elkarren artean".

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11. b) artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hau egin nahi diogu sail hori

GOMENDIOA

Egindako gogoetekin bat, Arartekoak Bilboko Udalarari gomendatzen dio berriki dezala gizarte-larrialdiko laguntzak ukatzeko ebazpena, horiek ematea bateragarria delako diru-sarrerak bermatzeko errenta azkendu izanarekin, *Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomiko eta laguntzen bateragarritasunari* buruzko Arartekoaren 2020ko ekainaren 12ko 3/2020 Gomendio Orokorrean adierazitakoari jarraikiz.

